# ISEI - IVEI

## Rs2.2.4

## CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2. MAILAN: INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA.

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

**Edizioa: 2013ko abendua**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta

**Sarrera** **4**

**Rs2.2.4.1 taula eta grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.** **6**

**Rs2.2.4.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenak, geruzaren arabera (irakasteredua eta hezkuntza-sarea).** **7**

**Rs2.2.4.3 taula eta grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan (*irakurmena, entzumena, idazmena)* lortutako puntuazio zuzenak, orokorrak eta sexuaren arabera.** **8**

**Rs2.2.4.4 taula eta grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, adin-egokitasuna irakasmailarekiko, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza** **9**

# INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011[1].

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* izan duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2011n gauzatu zen Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila dituen eskala batean.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: sexua, indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmailarekiko egokitasuna (jaioturtearen arabera), geruza (hezkuntza-sarea[2] eta irakasteredua[3]), gurasoen ikasmaila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.

EAEn 2011. urtean, DBHko 2. mailako ikasleen % 46,4, hurrenez hurren, sare publikoan zeuden, eta % 53,6, itunpeko sarean.

2011n *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzia*n errendimendu-mailetako ehunekoak, handienetik txikienera ordenaturik, honako hauek izan dira: erdiko maila (% 58,5), maila aurreratua (% 24,6) eta hasierako maila (% 16,9). Maila aurreratuan, nesken ehunekoa mutilena baino 4,4 puntu handiagoa da, erdiko mailan apur bat handiagoa da (0,9 puntu), baina hasierako mailan mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa da (5,4 puntu).

Batez besteko puntuazioak geruzen arabera aztertzen ditugunean, puntuaziorik altuena (264) itunpeko D ereduan izan dela ikus dezakegu, eta gero itunpeko A ereduan (260) eta B ereduan (256). Sare publikoan puntuaziorik altuena D ereduan (244) izan da, eta puntuaziorik apalena, A ereduan (198).

Nesken batez besteko puntuazio orokorra (255) mutilena (246) baino 9 puntu handiagoa da. Konpetentziaren hiru dimentsioei dagokienez (*irakurmena, entzumena, idazmena*), neskek mutilek baino puntuazio hobeak lortu dituzte hiru dimentsioetan. *Irakurmenean* eta *entzumenean* neskek (254) mutilek (246) baino 8 puntu gehiago lortu dituzte; idazmenean nesken puntuazioa (261) mutilena (239) baino 22 puntu handiagoa izan da.

2011ko ebaluazio diagnostikoko erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: gurasoek goi mailako ikasketak bukatu dituzte (% 91,7), adinagatik dagokion irakasmailan dago (% 89,5), ISEK indize altua du (% 93,6), autoktonoa da (% 85,5), eta bere etxeko hizkuntza euskara da. Erdiko mailan eta maila

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm
[2] En EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.
[3] EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).

aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: irakasmaila errepikatu du (% 55,7), etorkina da (% 55,9), gurasoek ez dituzte bukatu derrigorrezko ikasketak (% 56,6), eta ISEK indize baxua du (% 62,7).

### Rs2.2.4.1 taula eta grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | | 2011 |
|---|---|---|
| Nivel de rendimiento INICIAL | Total | **16,9** |
| | Chicas | 14,1 |
| | Chicos | 19,5 |
| Nivel de rendimiento MEDIO | Total | **58,5** |
| | Chicas | 59,0 |
| | Chicos | 58,1 |
| Nivel de rendimiento AVANZADO | Total | **24,6** |
| | Chicas | 26,8 |
| | Chicos | 22,4 |




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011.

## Rs2.2.4.2 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenak, geruzaren arabera (irakasteredua eta hezkuntza-sarea).**

| | 2011 |
|---|---|
| A Publikoa | 198 |
| B Publikoa | 226 |
| D Publikoa | 244 |
| A Itunpekoa | 260 |
| B Itunpekoa | 256 |
| D Itunpekoa | 264 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011.

## Rs2.2.4.3 taula eta grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan (*irakurmena, entzumena, idazmena)* lortutako puntuazio zuzenak, orokorrak eta sexuaren arabera.**

| | | 2011 |
|---|---|---|
| Guztira | Guztira | 250 |
| | Neskak | 255 |
| | Mutilak | 246 |
| *Irakurmena* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 254 |
| | Mutilak | 246 |
| *Entzumena* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 254 |
| | Mutilak | 246 |
| *Idazmena* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 261 |
| | Mutilak | 239 |




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011.

**Rs2.2.4.4 taula:**

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, adin-egokitasuna irakasmailarekiko, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza**

| | | Ikasle % | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 2011 | | 2011 | |
| ISEK | Maila baxua | **18,3** | 37,3 | 54,9 | 7,8 |
| | Maila ertain baxua | **22,0** | 18,2 | 65,8 | 16,1 |
| | Maila ertain altua | **28,5** | 14,2 | 62,2 | 23,6 |
| | Maila altua | **31,2** | 6,4 | 52,1 | 41,5 |
| Egokitasuna | Adina bat dator ikasmailarekin | **81,2** | 10,5 | 60,4 | 29,1 |
| | Adina **EZ** dator bat ikasmailarekin | **18,8** | 44,3 | 50,6 | 5,1 |
| Titulartasuna | Publikoa | **45,2** | 22,8 | 61,0 | 16,3 |
| | Itunpekoa | **54,8** | 12,0 | 56,5 | 31,4 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrigorrezko ikasketak bukatu **gabe** | **3,4** | 43,4 | 50,9 | 5,7 |
| | Derrigorrezko ikasketak | **17,9** | 30,6 | 59,7 | 9,7 |
| | Batxilergoa, HZ | **36,2** | 16,0 | 64,3 | 19,6 |
| | Goi mailako ikasketak | **42,5** | 8,2 | 54,0 | 37,7 |
| Jaioterria | Autoktonoa | **92,3** | 14,6 | 59,5 | 26,0 |
| | Emigratzailea | **7,7** | 44,1 | 47,7 | 8,2 |
| Familia-hizkuntza* | Euskara | **19,9** | 9,9 | 62,6 | 27,6 |
| | Euskara **EZ** dena | **80,1** | 18,6 | 57,6 | 23,8 |

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011.

## Rs2.2.4.4 grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, adin-egokitasuna irakasmailarekiko, hezkuntza-sarea, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza**




*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zion etxeko hizkuntzaren galderari erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009,2010 eta 2011.